**EIBARKO UDALA**

**AYUNTAMIENTO DE EIBAR**

# URAREN ZIKLO OSOA KUDEATZEKO ELKARLANERAKO HITZARMENA.

Eibarren, 2004ko ekainaren 11n,

**BILDUTA,**

Alde batetik, Victoriano Gallastegi Altube jauna, duen kargua publikoa izanik eta kargu horrek eskatzen diona betetzen diharduenez, bere datu pertsonalak azaldu beharrik ez duena.

Eta bestetik, Iñaki Arriola López jauna, duen kargua publikoa izanik eta kargu horrek eskatzen diona betetzen diharduenez, bere datu pertsonalak azaldu beharrik ez duena.

Nere aurrean, Maria Aranzazu Etxaniz Petralanda, Udal honetako Idazkari Nagusi naizen honen aurrean daudela,

**BIEK ESKU HARTZEN DUTE,**

Victoriano Gallastegi Altube jaunak, **GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOA**ren izenean eta erakunde horren ordezkari legez, 1998ko otsailaren 20ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara eman ziren erakunde horren Estatutuen arabera duen ordezkaritza.

Iñaki Arriola López jaunak, Alkate-udalburu den aldetik, **EIBARKO UDALA**ren izenean eta udalaren ordezkari legez, Udalbatzak 2004ko maiatzaren 31n egindako bilkuran hartu zuen erabaki bidez ekitaldi honetarako baimena duena. Udal honetako Idazkari Nagusiak udalbatzaren erabaki horren inguruan egin duen ziurtagiria hitzarmen honi lotu zaio.

**ABIABURUAK**

**Aurrenekoa:** Gipuzkoako Ur Kontsortzioa zuzenbide publikoko erakunde bat da, oinarriz elkartea, Gipuzkoako hainbat udalerrik eratutakoa –besteak, beste Eibarkoak-, eta bere Estatutuen hitzetan, *baldintza egokietan eta indarrean dagoen arautegiaren arabera, lehen mailako sareetan, ur hornidura eta saneamenduaren azpiegitura jarri eta ustiatzea eta behar diren zerbitzuak ematea* helburu duena. Estatutu bidezko xedapen hori dela medio, Kontsortzioa da Eibarko udalerrian lehen mailako sarearen saneamendua eta ur horniduraren zerbitzu publikoa kudeatzen ari dena.

**Hurrena:** 2000ko azaroaren 17an, Eibarko udalaren eta Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren arteko Hitzarmena izenpetu zen, eta hitzarmen horren arabera, Gipuzkoako Ur Kontsortzioak bere gain hartu zuen Eibarko Udalaren ur abonatuen kudeaketa, ondoko alderdi hauek bere gain hartuta:

# CONVENIO DE COLABORACION PARA LA GESTION DEL CICLO INTEGRAL DEL AGUA

En Eibar, a 11 de junio de 2004

**REUNIDOS**

De una parte D. Victoriano Gallastegi Altube, exento de reseñar sus circunstancias personales en razón del cargo público por el que actúa

Y de otra D. Iñaki Arriola López, exento de reseñar sus circunstancias personales en razón al cargo público por el que actúa

Ante mí, María Aránzazu Etxaniz Petralanda, Secretaria General del Ayuntamiento de Eibar

**INTERVIENEN**

D. Victoriano Gallastegi Altube en nombre y representación del **CONSORCIO DE AGUAS DE GIPUZKOA**, representación que ostenta conforme a los Estatutos de la entidad publicados en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de 20 de febrero de 1998.

D. Iñaki Arriola López en nombre y representación del **AYUNTAMIENTO DE EIBAR**, en su calidad de Alcalde-Presidente del mismo, autorizado para este acto en virtud de acuerdo adoptado por el Pleno del Ayuntamiento en sesión celebrada el día 31 de mayo de 2004. Una certificación del citado acuerdo expedida por la Secretaria del Ayuntamiento se adjunta al presente convenio.

**ANTECEDENTES**

**Primero**: El Consorcio de Aguas de Gipuzkoa es un organismo de derecho público de base asociativa constituido por una serie de municipios de Gipuzkoa – entre ellos el de Eibar – cuyo fin consiste en *"el establecimiento y la explotación de la infraestructura del abastecimiento del agua y saneamiento de redes primarias y la prestación de los servicios correspondientes, todo ello en condiciones adecuadas y conforme a la normativa vigente"*. Conforme a dicha disposición estatutaria el Consorcio viene gestionando el servicio público de abastecimiento de agua y saneamiento de la red en "alta" en el municipio de Eibar

**Segundo**: Con fecha 17 de noviembre del año 2000, se firmó un Convenio entre el Ayuntamiento de Eibar y el Consorcio de Aguas de Gipuzkoa mediante el que el Consorcio de Aguas de Gipuzkoa asumió la gestión de los abonados de agua del Ayuntamiento de Eibar, gestión que comprendía los siguientes aspectos:

1. Ur-kontagailuak hiru hilabetez behin irakurtzea.
2. Kitapenak egitea, fakturazioak egitea eta erreziboak kobratzea.
3. Ur-kontagailuak zaintzea, mantentzea, konpontzea eta egiaztatzea.
4. Ur-kontagailu zaharrak kendu eta berriak ipintzea
5. Eibarko udalaren izenean ur-horniduraren kontratazioak egitea.
6. Abonatu edo bezeroei arreta eskaintzea.

Gainera, uraren abonatu edo bezeroen kudeaketa bere gain hartzeaz gain, Kontsortzioak, zabor-tasari dagokion Erroldaren mantenimenduaren kargu egin eta tasa horretatik sortutako erreziboak -urarenarekin batera kitatzen zirenak- kobratzeko ardura hartu zuen.

**Hirugarrena.** Eibarko udalak, une honetan, URAREN ZIKLO OSOAren kudeaketa, hau da, lehen mailako eta bigarren mailako sareen kudeaketa eta baita ere horretan egin behar diren inbertsioak ere, Kontsortzioaren Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren esku utzi nahi du.

**Laugarrena:** Kontsortzioaren Estatutuetako 7.2. artikuluak hauxe seinalatzen du: *"Horrela erabakiko lukeenean, Kontsortzioak ur zikloaren barruan beste fase batzuetara zabal ditzake helburuak, eskatuko luketen udalekin adostasunean eta aldez aurretik hitzarmena egin ondoren haiekin".* Erabaki hori Kontsortzioaren Batzar Nagusiak 2000ko abenduaren 21ean egindako bilkuran hartu zuen.

Bestalde, Toki-jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Oinarrizko Legeak, Udalek, hala behar dutenean, ur-hornidura eta saneamendu zerbitzua partzuergoan eskain dezaketela ezartzen du; eta gainera, 2/2004 Foru Arauaren 7.2. artikuluak berak ere hauxe dio: *"udalek, mankomunitateek eta gainerako elkartzezko udal entitateek eskuordetzan eman ahal izango dizkiete eratu dituzten partzuergoei egokitzat jozen diren lankidetza formalen bidez, partzuergoak bere gain hartutako zerbitzuen prestazioaren zioz udalek ezarritako tasen kudeaketa, likidazio eta bilketa. Partzuergoak haren zenbatekoa eguneratu ahal izango du, derrigorrezko txosten ekonomiko-administratiboan jasotakoaren arabera."*

Bestalde, Gipuzkoako Ur Kontsortzioak, izatez toki-erakunde ez denez, lege-xedapenen arabera –toki-jaurbidearen alorrean indarrean dauden lege xedapen guztien Testu Bateratuaren 110.5 artikulua- eta bere Estatutuen arabera (9. art.), zerbitzu publikoak eskaintzeko dauden modu desberdin guztiak erabil ditzake. Alde horretatik, bere zerbitzuak kudeatzeko orduan, Gipuzkoako Ur Kontsortzioak elkarte anonimo bat du, kapital aldetik zeharo publikoa dena: GIPUZKOAKO URAK SA.

1. La lectura trimestral de contadores.
2. La liquidación, facturación y cobro de los recibos.
3. La conservación, mantenimiento, reparación y verificación de contadores.
4. La sustitución de contadores.
5. La contratación del suministro a nombre del Ayuntamiento.
6. La atención a los abonados.

Además, junto con la gestión de abonados de agua, el Consorcio se hacía cargo del mantenimiento del Padrón de la tasa de Basuras y de la gestión del cobro de los recibos que se generasen por ese concepto, que se liquidaban conjuntamente con los del agua.

**Tercero:** El Ayuntamiento de Eibar, en la actualidad, se halla interesado en que la gestión del CICLO INTEGRAL DEL AGUA, que comprende la gestión de las redes en "alta" y en "baja", incluso la realización de las inversiones necesarias, sea asumida por el Consorcio de Aguas de Gipuzkoa.

**Cuarto:** El artículo 7.2 de los estatutos del Consorcio señala que *"cuando así lo acuerde, el Consorcio podrá extender sus fines del ciclo del agua, de acuerdo con los Ayuntamiento que lo interesen y previo convenio con los mismos"*. La Asamblea General del Consorcio adoptó dicho acuerdo en sesión celebrada el día 21 de diciembre de 2000.

A su vez, la Ley Básica 7/1985 Reguladora de las Bases de Régimen Local, establece que los Ayuntamientos, cuando así lo interesen, pueden prestar el Servicio de abastecimiento y Saneamiento de forma Consorciada, indicando, además, el artículo 7.2 de la Norma Foral 2/2004, que *"Los municipios, las Mancomunidades y demás entidades Municipales Asociativas podrán delegar en los Consorcios que hubieran constituido mediante las fórmulas de colaboración que procedan, las facultades de gestión, liquidación y recaudación de las tasas que aquéllos establezcan por la prestación de los servicios asumidos por el Consorcio, pudiendo dicho Consorcio actualizar su cuantía atendiendo a lo previsto en la preceptiva memoria económico-administrativa justificativa de la misma"*

Por otra parte, el Consorcio de Aguas de Gipuzkoa en cuanto que ente local impropio puede, conforme a las disposiciones legales – art. 110.5 del Texto Refundido de las disposiciones legales vigentes en materia de Régimen Local – y estatutarias (art. 9) – utilizar a su vez las diferentes formas de prestación de servicios públicos. En este sentido y para la gestión de sus servicios el Consorcio de Aguas de Gipuzkoa tiene constituida una sociedad anónima de capital íntegramente público denominada GIPUZKOAKO URAK SA.

EIBARKO UDALA

AYUNTAMIENTO DE EIBAR

Hori guztiori kontuan hartuta, alde biek, legez eta egitez jarduteko ahalmena dutela elkarri aitortu ondoren; ondoko HITZARMEN hau izenpetzea erabaki dute.

## HITZARKINAK

**LEHENA:** Eibarko Udalak, hitzarmen honen arabera eta Toki-jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Oinarrizko Legearen arabera, hauxe erabaki du: herriko uraren ziklo osoa, hau da, lehen mailako eta bigarren mailako saneamendu eta ur hornidura sareen kudeaketa osoa Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren esku lagatzea, baita behar diren inbertsioak egitea ere. Helburua hori izanik, Eibarko Udalak, bere titularitatepekoak diren ur-emakida, ur emarien gozamen guztiak, azterlanak, proiektuak, sareak, instalazioak eta partzuergopeko zerbitzuak eskaintzearekin lotuta dauden gainontzeko baliabide guztiak, ekarpenez Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren esku uztea erabakitzen du.

**BIGARRENA:** Indarrean dagoen legeriaren arabera, Ur Kontsortzioak, Hitzarmen honen xede diren helburuei eta zerbitzuei datxezkien ahalmenak, eskumenak, aginpideak, eskuduntzak, eskubideak eta obligazio guztiak izango ditu.

**HIRUGARRENA:** Gipuzkoako Ur Partzuergoak, Eibarko udalerriko uraren ziklo osoaren kudeaketa bere gain hartuko du 2004ko uztailaren 1etik aurrera; baita 2004. urteko hirugarren hiru hilabetekoari dagokion fakturazioaren kudeaketa ere.

**LAUGARRENA:** Eibarko Udalak, Hitzarmenak dirauen bitartean eta bigarren mailako sarea erabiltzen uzteagatik, ordain gisa, kontsumitutako metro kubiko bakoitzari dagokion kanona jasoko du, urte bakoitzerako Kontsortzioaren Batzar Nagusiak onartuko duen kanona.

Hala ere, Hitzarmen hau indarrean egongo den lehen hamar urte horietan udalak ez du urteko ezer kobratuko kontzeptu horregatik; trukean jasoko duen ordainketa bakarra SEIEHUN ETA LAUROGEITA BI MILA EHUN ETA LAUROGEITA SEI euro (682.186 €) izango da, hitzarmena izenpetzen den egunetik bertatik hiru (3) hilabeteko epe barruan jasoko duena.

**BOSTGARRENA.** Ur Kontsortzioak egin behar dituen inbertsioak:

Gipuzkoako Ur Kontsortzioak, berak zuzenean edo beste erakunde batzuekin elkarlanean arituta zeharka, ondoko inbertsio hauek egiteko konpromisoa hartzen, lehen mailako sarean, ETAPetan eta bigarren mailako sareari begira Plan zuzentzaileak aurreikusitakoetan:

Por lo expuesto y reconociéndose ambas partes la capacidad jurídica y de obrar necesarias, acuerdan suscribir el presente CONVENIO con base en las siguientes

## CLÁUSULAS

**PRIMERA:** El Ayuntamiento de Eibar en virtud del presente convenio, y conforme a la Ley Básica 7/1985, Reguladora de las Bases de Régimen Local, decide que el Consorcio de Aguas de Gipuzkoa asuma la gestión del ciclo integral del agua, que comprende la gestión de las redes de abastecimiento y saneamiento de "alta" y "baja", incluso la realización de las inversiones necesarias. A tal fin, el Ayuntamiento de Eibar, acuerda aportar al Consorcio de Aguas de Gipuzkoa, todas las concesiones, aprovechamientos de caudales, estudios, proyectos, redes e instalaciones y demás medios afectos a la prestación de los servicios consorciados, de los que es titular.

**SEGUNDA:** El Consorcio de Aguas ostentará cuantas potestades, competencias, atribuciones, facultades, derechos y obligaciones sean inherentes a los servicios y fines objeto de este Convenio, y de conformidad con la legislación vigente.

**TERCERA:** El Consorcio de Aguas de Gipuzkoa asumirá la gestión del ciclo integral del agua del municipio de Eibar a partir del día 1 de julio de 2004, y de la facturación correspondiente al tercer trimestre del año 2004.

**CUARTA:** El Ayuntamiento de Eibar recibirá, durante la duración del convenio y como contraprestación por la cesión de uso de la red en baja, el canon por metro cúbico consumido que, para cada año, apruebe la Asamblea General del Consorcio.

Ello no obstante, durante los 10 primeros años de vigencia del presente Convenio, el Ayuntamiento no percibirá cantidad anual alguna por este concepto, recibiendo en contraprestación un único pago por importe de SEISCIENTOS OCHENTA Y DOS MIL CIENTO OCHENTA Y SEIS EUROS (682.186 €), en el plazo de 3 meses contados a partir de la firma del Convenio.

**QUINTA:** Inversiones a realizar por el Consorcio de Aguas.

El Consorcio de Aguas de Gipuzkoa se compromete a realizar, ya sea directamente o indirectamente en colaboración con otras instituciones, las siguientes inversiones en la red en alta, en las E.T.A.P, y las previstas en el Plan Director para la red en "baja.

| | |
|---|---|
| A) **Lehen mailako sarean egin beharreko inbertsioak:** Urkuluko ETAParekin lotzea (20 hilabeteko epea) | A) **Inversiones en la red en "Alta"** Conexión con la E.T.A.P. de Urkulu (plazo 20 meses). |
| b) **Inbertsioak ETAPetan (epea, 6 hilabete)** Ipurua eta Tutulukuako ETAPak prest jartzea. | B) **Inversiones en las E.T.A.P. (plazo 6 meses)** Puesta a punto de las E.T.A.P. de Ipurúa y Tutulukúa |
| c) **Bigarren mailako sarean egin beharreko inbertsioak:** Kontsortzioak, Plan Zuzentzailean aurreikusitako obrak osorik amaitu arte, bigarren mailako sarean urtero 360.000 euro inbertitzeko konpromisoa hartzen du (180.000 euro 2004. urtean) | C) **Inversiones en la red en "baja"** El Consorcio se compromete a realizar, hasta la ejecución completa de las obras previstas en el Plan Director, una inversión anual en la red en baja de 360.000 € (180.000 € en el año 2004). |
| Bigarren mailako sarean aurreikusitako inbertsio horietakoren bat Kontsortzioak bere kargu ez hartzeko erabakia hartuko balitz, Udalak horren diru ordaina jasoko du, eta Gipuzkoako Ur Kontsortzioa derrigortuta dago Eibarko Udalari egin ez duen inbertsio horren zenbatekoa ordaintzera, hitzarmen hau izenpetzen denetik inbertsioa egiteari ezetza ematen zaion arte Kontsumoko Indize Nazionalak izan duen igoerarekin eguneratuko den ordainketa. Hori dela eta, bost urtetik (5) behin Kontsortzioak bere kargu egin dituen inbertsioen azterlan bat egingo da, eta hala balegoke, Kontsortzioak udalari ordaindu beharko liokeena finkatuko. | Si se decide la no realización a cargo del Consorcio de alguna de las inversiones previstas en la red de "baja", el Ayuntamiento se verá compensado económicamente, obligándose el Consorcio de Aguas de Gipuzkoa a abonarle el importe de la inversión no realizada, actualizada con la variación que experimente el Indice Nacional de Precios al Consumo desde la fecha de firma del presente convenio hasta la de renuncia a la ejecución de la inversión. A estos efectos, cada 5 años se realizará un estudio de las inversiones realizadas a cargo del Consorcio y se fijarán las compensaciones que, en su caso, el Consorcio debería de abonar al Ayuntamiento |
| **SEIGARRENA**: Eibarko Udalak, Kontsortzioaren Batzar Nagusiak egingo dion proposamenaren arabera, tasa-aldaketari dagokion espedientea bideratzeko konpromisoa hartzen du. | **SEXTA**: El Ayuntamiento de Eibar se compromete a tramitar el correspondiente expediente de modificación de tasas conforme a la propuesta que le formule la Asamblea General del Consorcio. |
| Udalak 2005. urterako tasak onartuta, ondorengo urteetako tasa-zenbatekoa Gipuzkoako Ur Kontsortzioak berak eguneratuko du Zerga Neurri batzuk onartzen dituen 2/2004 Foru Arauaren 7.2 artikuluak egiten uzten duen moduan. | Aprobadas por el Ayuntamiento las tasas para el año 2005, su cuantía para años posteriores será actualizada por el Consorcio de Aguas de Gipuzkoa tal y como permite el artículo 7.2 de la Norma Foral 2/2004 por la que se aprueban Determinadas Medidas Tributarias. |
| Eibarko udalak, berariaz, Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren esku uzten ditu bere eskumenak, hau da, udaren ziklo osoaren kudeaketa, kitapena eta tasa-bilketa; baita zaborrena ere. | El Ayuntamiento de Eibar delega expresamente en el Consorcio de Aguas de Gipuzkoa las facultades de gestión, liquidación y recaudación de las tasas del ciclo integral del agua, así como de las basuras. |
| **ZAZPIGARRENA**: Udal kontsumoengatik ordaindu beharreko tarifak. | **SÉPTIMA**; Tarifas a abonar por consumos municipales. |
| Ur Kontsortzioaren Batzar Nagusiak onartutako tarifetan, udalak berak egiten dituen kontsumoei begira ondoko hobari hauek ezarriko zaizkie:<br>a) Ura atera, tratatu eta banatzea............................ %80<br>b) Uraren saneamendua eta arazketa.......................%80<br>c) Saneamendu plana............................................%100 | Sobre las tarifas aprobadas por la Asamblea General del Consorcio de Aguas, se aplicarán las siguientes bonificaciones a los consumos propios del Ayuntamiento:<br>a) Aducción, tratamiento y distribución de agua.... 80%<br>b) Saneamiento y depuración.............................. 80%<br>c) Plan de saneamiento...................................... 100% |
| **ZORTZIGARRENA**: Langileak beregainatzea. | **OCTAVA**: Asunción de personal. |
| Gipuzkoako Ur Kontsortzioak, udalean zerbitzuari atxikitako beharginetatik, gehien jota, 3 hartzeko konpromisoa hartzen du, ur abonatuen kudeaketarako hitzarmenaren ondorioz beharginak beregain hartu zituenean hartu zituen baldintza beretsuetan. | El Consorcio de Aguas de Gipuzkoa se compromete a asumir hasta un máximo de 3 personas afectas al servicio en el Ayuntamiento, en semejantes condiciones a las que asumió como consecuencia del convenio de gestión de abonados de agua. |

BEDERATZIGARRENA. Presio-gehitzaileak jartzea.

Inbertsioetarako Plan zuzentzailea martxan jartzearen ondorioz, udalerri honetan dagoen torreren baten uraren presioa gehitzeko tresneria ipini beharra balego, bera Kontsortzioa izango da horren instalazio eta mantenimendu kostuen kargu egingo dena. Edifizio edo eraikin berrietan, eraikitzalea edo etxegilea izango da ekipo horien kostuaren kargu egingo dena, edo bestela, sarearekin lotzeko ardura izango du, urak behar besteko presioa duen lekuren baten lotuta. Azken kasu horietan, instalazioaren mantenimendua abonatuen edo bezeroen kargu joango da.

HAMARGARRENA: Kontsortzioak bere gain hartzen du edozein partikularrek bere ondasun eta eskubideetan jasan dezakeen edozein lesioren ondorioz Kontsortzioari eska liezaiokeen kalte-erantzukizun osoa, baina beti ere, egindako kalte edo lesio hori eskaintzen den zerbitzuaren funtzionamendu normalaren edo funtzionamendu ez normalaren ondorio balitz ez bestela.

HAMAIKAGARRENA: 2004. urteko bigarren hiru hilabeteari dagozkion ur eta zabor erreziboak eta horren aurrekoak, hau da, Hitzarmena izenpetzen den egunean oraindik ordaintzeke daudenak, gaur egun egiten den moduan, Gipuzkoako Ur Kontsortzioak kobratuko ditu; kobratu eta bildutako zenbatekoa Udal Diruzaintzan sartu behar du hitzarmen hau izenpetu arte egiten ari zen moduan eta orain arte zeuden epe beretsuetan.

HAMABIGARRENA: Zabor-bilketa tasaren zergadunen kudeaketa.

Gipuzkoako Ur Kontsortzioak eramango du zabor tasaren zergadunen kudeaketa. Zehaztuta, hona hemen Kontsortzioaren egitekoak: Udalak bere Ordenantzan onartutako tarifak erabilita, erreziboak kitatu, fakturatu eta kobratzea; Errolda mantentzea (altak, baxak eta aldaketak egitea), eta zergadunak hartzea edo arreta eskaintzea; hori dena, kasu bakoitzerako udalak emango dizkion aginduen arabera eginda.

Zabor-tasatik bildutako dirua Eibarko Udalari ordainduko zaio, Hitzarmen hau izenpetu arte egiten zen moduan eta horretarako orain arte zeuden epe horietan.

HAMAIRUGARRENA: Hitzarmen hau izenpetu eta hamar urtera, Eibarko Udalak zerbitzuaren kudeaketa partzuergoratua bertan behera utzi dezake eta zerbitzua lege-araudiak uzten duen bete edozein bide erabilita kudeatu; horretarako hartu beharko liratekeen erabakiak hartuko lituzke eta indarrean egongo den legeriak eskatuko lizkiokeen urratsak emango, Gipuzkoako Ur Kontsortzioari erabakiaren berri sei hilabete lehenago emanda.

Udalak partzuergoratutako zerbitzuaren eskaintza

NOVENA: Instalación de sobrepresores.

Si como consecuencia de la puesta en marcha del Plan Director de Inversiones, fuera necesaria la instalación de grupos sobrepresores en alguna de las torres existentes en el municipio, el Consorcio asumirá los costes de instalación y mantenimiento. Para las nuevas edificaciones será el promotor quien correrá a cargo de estos equipos, ó bien, se encargará de realizar el enganche a la red, en algún punto con presión suficiente que exista. En éstos últimos casos, el mantenimiento de las instalaciones será por cuenta de los abonados

DÉCIMA: El Consorcio de aguas asume la responsabilidad por daños a terceros que se le pudieran exigir como consecuencia de toda lesión que sufran los particulares en cualquiera de sus bienes y derechos, siempre que la lesión fuera consecuencia del funcionamiento normal o anormal del servicio prestado.

UNDÉCIMA: Los recibos de agua y basura correspondientes al segundo trimestre del año 2004 y anteriores que, a la fecha de firma del Convenio, se encuentren pendientes de pago, serán cobrados, como se hace en la actualidad, por el Consorcio de Aguas de Gipuzkoa, que deberá ingresar el importe recaudado en la Tesorería Municipal, en los plazos y forma que se venía realizando hasta el momento de la firma del presente convenio.

DUODÉCIMA: Gestión de contribuyentes de la tasa de recogida de basuras.

El Consorcio de Aguas de Gipuzkoa realizará la gestión de contribuyentes de la tasa de basura. Concretamente el Consorcio realizará la liquidación, facturación y cobro de los recibos, aplicando las tarifas aprobadas por el Ayuntamiento en su Ordenanza, el mantenimiento del padrón (altas, bajas y modificaciones) y la atención a los contribuyentes, todo ello siguiendo las instrucciones que, en cada caso, le dé el Ayuntamiento.

El importe de la recaudación obtenida por éste concepto se abonará al Ayuntamiento de Eibar en los plazos y forma en que se venía realizando hasta la firma del presente Convenio.

DECIMOTERCERA: Transcurridos diez años desde la firma del presente Convenio, el Ayuntamiento podrá revisar la gestión consorciada del servicio y en consecuencia gestionarlo por cualquiera otra de las formas que permita el ordenamiento jurídico, tomando para ello los acuerdos oportunos y dando los pasos que le exija la legislación vigente, comunicándolo al Consorcio de Aguas de Gipuzkoa con seis meses de antelación.

Si el Ayuntamiento acordase la cancelación de la

mozteko erabakia hartuko balu, zerbitzua kantzelatu baino lehen, Gipuzkoako Ur Kontsortzioari ordaindu behar dio. Horretarako, Kontsortzioak udalerrian egin dituen berriztapenen eta inbertsioen kalkulua egin eta ateratzen den zenbatekoari, Kontsortzioak ordurarte Eibarko udalari entregatu diona batuko zaio, eta batuketa horretatik aterako den zenbatekoari, Kontsortzioak inbertsioak eta berriztapenak egiteko Eibarren kobratu dituen ur faktura guztien zenbatekoa kenduko. Hortik aterako litzatekeen zenbatekoa udalaren aldekoa balitz, Ur Kontsortzioa izango da Eibarko Udalari ordaindu behar izango diona.

## XEDAPEN IRAGANKORRAK

**XEDAPEN BAKARRA**: 2004ko hirugarren eta laugarren hiru hilabeteetako fakturazioak, Eibarko udalak 2004. urterako onartutako tarifak aplikatuz egingo dira, 2003ko abenduaren 31ko 249. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara emandakoak.

Udalak 2004. urterako onartu dituen tarifa horiei eutsi egin dienez eta Kontsortzioak udal tarifa horiek 2004. urteko hirugarren eta laugarren hiru hilabeetarako beregaindu egin dituenez, Eibarko Udalaren tarifak erabilita bilduko duen diruaren eta Kontsortzioak 2004. urteko azken hiru hilabete bietarako onartuta zituen bere tarifak erabiliz gero jasoko lukeen diruaren arteko diferentzia edo alde hori, Eibarko udalak Kontsortzioari ordainduko dio. Diferentzia hori udalaren aldekoa izango balitz, Kontsortzioa izango da Udalari dena delako zenbatekoa ordainduko diona.

**AZKEN XEDAPENA**: Hitzarmen honek izaera administratiboa duenez, hitzarmenaren sorrerari, interpretazioari, aldaketari edo azkenketari buruzko edozein gora behera aztertzeko eskumena, administrazioarekiko auzi-aginpidearen esku geratzen da.

Eta elkar adostasunaren erakusgarri, goian aipatutakoek, ondorio bakarrekoa den hitzarmen honen ale biak izenpetzen dituzte goian esandako lekuan eta egunean, honi guztioni, Idazkari naizen aldetik, fede ematen diodalarik.

prestación del servicio de forma consorciada, previa a la cancelación habrá de hacer efectivo el pago al Consorcio de Aguas de Gipuzkoa del importe resultante del cálculo de las inversiones y renovaciones realizadas en el municipio por el Consorcio y las cantidades entregadas al Ayuntamiento de Eibar menos las cantidades acumuladas por el Consorcio mediante el cobro de las facturas de agua en Eibar para la realización de inversiones y renovaciones. En caso de resultar negativa, será el Consorcio de Aguas de Gipuzkoa quien deberá de abonar dichas cantidades al Ayuntamiento de Eibar.

## DISPOSICIONES TRANSITORIAS

**UNICA**: Las facturaciones correspondientes al tercero y cuarto trimestres del año 2004 se realizarán con las tarifas aprobadas por el Ayuntamiento de Eibar para el año 2004, publicadas en el Boletín Oficial de Gipuzkoa nº 249, de 31 de diciembre de 2003.

Como consecuencia del mantenimiento de las tarifas aprobadas por el Ayuntamiento para el año 2004, y de la asunción de las mismas por el Consorcio durante el tercero y cuarto trimestres del año 2004, el Ayuntamiento compensará al Consorcio con la diferencia entre lo recaudado con las tarifas del Ayuntamiento y la recaudación que supondría aplicar las tarifas aprobadas por el Consorcio para los dos últimos trimestres del año 2004. En el caso de que la diferencia fuese a favor del Ayuntamiento, será el Consorcio quien compensará al Ayuntamiento en la cantidad que resulte.

**DISPOSICION FINAL**: Este convenio tiene carácter administrativo y para conocer sobre cualquier controversia surgida en cuanto a su nacimiento, interpretación, modificación o extinción, será competente la jurisdicción contencioso-administrativa.

Y en prueba de conformidad, firman el presente convenio en duplicado ejemplar y a un sólo efecto, en el lugar y fecha señalados, de todo lo cual, como Secretaria doy fe

**Izp /Fdo.: Sr. D. Victoriano Gallastegi Altube**
**Kontsortzioaren Presidentea**
**as de Gipuzkoa**

**Izp. / Fdo.: Sr. D. Iñaki Arriola López**
**Eibarko**
**Alcalde-Pres**

**Fdo.: Sra. Mª Aranza**
**Idazkar**
**Secre**